

Euskal AE, 2022an, herrialde ‘berritzaile handien’ taldean dago, eta EB-27ren batezbestekoaren gainera dago, % 10 gainera

‘Esparru-baldintzak’ eta ‘Inbertsioak’ berrikuntza-blokeetan nabarmentzen da Euskal AE


European Innovation Scoreboard–Europako Berrikuntzako Adierazleen Panelak –EIS 2022– 0,597ko balioa du Euskal AEn, EB-27ren batezbestekoa (0,542) baino puntuazio altuagoa, Eustaten datuen arabera.

Datu horrek erakusten du Euskal AE herrialde berritzaile sendoen taldearen maila berean dagoela; izan ere, EB-27k erregistratutakoaren % 100 eta % 125 bitarteko batezbestekoa lortu du; zehazki, % 110,1. Bestalde, Espainia herrialde berritzaile moderatuen artean dago, 0,481 balioa eskuratu baitu.

Europako Berrikuntzako Adierazleen Panelak –EIS 2022– herrialdeetako ekonomiak berrikuntza-jarduerak garatzeko zenbateko gaitasuna duten eta zer mailatan garatzen duten neurtzen du. EB-27ko herrialdeek, eskuratutako puntuazioaren eta Europako batezbestekoarekin alderatuta duten goeraren arabera, lau kategoriatan taldekatzen dira.

EISa etengabe berrikusten ari den adierazleen panela da. Urtero, aldakuntzak daude bai hura eratzten duten adierazleetan, bai hura kalkulatzeko formulatan. Aldaketa horiek direla eta, ezin dira aurreko urteetan eginiko EISekin erkatetako egin. EIS bakoitzean zortzi urtetarako datuak ematen dira, 2015-2022 EIS 2022ren kasuan, eskuragarri dauden azken datuak erabili direla.

Europako berrikuntza adierazleen panela, EIS 2022. Euskal Autonomia Erkidegoa eta EB-27



Iturria: Eustat. Europako berrikuntza adierazleen panela -EIS- eta Europar batzordea: Eustat. eta Europako Batzordea
Oharra: Koloreztatutako zutabeak 2022ko balioei dagozkie, adirazle bakoitzerako daturik berrienak erabiliz, eta grisekoak 2015koei, EIS 2022ren arabera kalkulatuak.

Lehen kategorian, **berrikuntzan lider diren herrialdeen** kategorian, Europar Batasunaren batezbestekoaren % 125etik gorako puntuazioa lortzen duten herrialdeak daude, honako hauek, zehazki: Suedia (0,735), Finlandia (0,735), Danimarka (0,731), Herbehereak (0,701) eta Belgika (0,698), baina, European, Suitzak (0,772) du abangoardia berritzailearen postua.

Bigarren taldean, **herrialde berritzaile sendoen** taldean, batezbestekoaren % 100 eta % 125 bitarteko puntuazioa lortzen dutenak daude. Kasu honetan, puntuazio gehienetik gutxienerako hurrenkerari jarraikiz, honako hauek daude: Irlanda (0,645), Luxenburgo (0,643), Austria (0,641), Alemania (0,637), Txipre (0,579) eta Frantzia (0,571). Euskal AE, 0,597ko puntuazioa duenez, talde horren mailan dago, Alemania eta Txiprereren artean, EB-27ren batezbestekoaren % 110,1eko puntuazioa baitu.

Jarraian, hirugarren taldean, **herrialde berritzaile moderatuenean** (batez bestekoaren % 70 eta % 100 bitartean), honako hauek daude: Estonia, Eslovenia, Txekiar Errepublika, Italia, Espainia, Portugal, Malta, Lituania eta Grezia; 0,542 (Estonia) eta 0,435 (Grezia) bitarteko puntuazioa dute.

Azkenik, laugarren taldean, **gorabidean dauden herrialde berritzaileen** taldean (batez bestekoaren % 70 baino gutxiago), honako hauek daude: Hungaria, Kroazia, Eslovakia, Polonia, Lituania, Bulgaria eta Errumania; 0,378 puntu eta 0,177 puntu bitartean dituzte.

Europako Berrikuntza Adierazleen Panela (4 bloke eta 12 dimentsio). Indize konposatuak. 2022

	EB-27	EUSKAL AE	ESPAINIA
Berrikuntzako adierazleen panela -EIS 2022-	0,54	0,60	0,48
ESPARRU BALDINTZAK	0,46	0,66	0,57
Giza baliabideak	0,42	0,61	0,54
Ikerketa sistemaren erakargarriak	0,42	0,60	0,41
Digitalizazioa	0,58	0,82	0,86
INBERTSIOAK	0,59	0,66	0,43
Finantziarioa eta Laguntza	0,66	0,64	0,49
Enpresen inbertsioa	0,62	0,71	0,39
Informazioaren teknologien erabilera	0,45	0,61	0,41
BERRIKUNTZA JARDUERAK	0,50	0,46	0,36
Berritzaileak	0,60	0,45	0,30
Lankidetzak	0,37	0,65	0,33
Ezagutza-aktiboak	0,56	0,35	0,43
ERAGINAK	0,62	0,59	0,56
Eraginak enpleguan	0,52	0,45	0,31
Eraginak salmentetan	0,69	0,57	0,67
Ingurumenaren iraunkortasuna	0,61	0,76	0,62

Data 2022ko Azaroaren 7a

Iturria: Eustat. Europako berrikuntzako adierazleen panela (EIS) eta Europako Batzordea


Nabarmendu behar da Europako Berrikuntzako Adierazleen Panela –EIS 2022– lau bloketan egituratzen dela, eta, haietan, berrikuntzako 12 dimentsio sartzen direla, eta, guztira, 32 adierazle.

Hori horrela, Euskal AE gailendu egiten da Europako batezbestekoaren aldean bi bloketan: ‘ESPARRU-BALDINTZAK’ eta ‘INBERTSIOAK’.

Lehen blokean, 'ESPARRU-BALDINTZAK' delakoan (enpresetatik kanpoko berrikuntzaren inguruko emaitzen eragile nagusiak neurtzen dituzte), Euskal AEk 0,66 puntu lortu ditu, eta 0,46 EBk; gainera, gure Erkidegoak Europako batezbestekoa baino puntuazio hobea lortu du hura osatzen duten hiru dimentsioetan: 'Giza baliabideak', 'Ikerketa-sistema erakargarriak' eta 'Digitalizazioa'.

'Giza baliabideak' dimentsioan kualifikazio handiko eta berrikuntzarako funtsezko elementu gisa bideratutako lanerako indarraren erabilgarritasuna neurtzen da. Dimentsio hori osatzen duten hiru adierazleak nabarmentzen dira Europako batezbestekoarekin alderatuta: '25 eta 34 urte bitartean zientzian eta teknologian graduatutako doktore berriak' milako 1,05era iristen dira EAEn, eta EB-27n, berriz, milako 0,70 dira; 'Hirugarren mailako hezkuntza duten 25 eta 34 urte bitarteko biztanleen ehunekoak' % 50,4ra iristen da, eta Europar Batasuneko batezbestekoa, berriz, % 41,2an da, eta dimentsio horretako hirugarren adierazlean, 'Etengabeko hezkuntza duten 25 eta 64 urte bitarteko biztanleen ehunekoak' delakoan, erkidegoa % 12,7ra iritsi da, eta EB, % 10,8ra.

Berrikuntzaren dimentsioak Euskal AEn eta EB-27n. Berrikuntza adierazleen panela EIS 2022



Iturria: Eustat. Berrikuntzako adierazleen panela -EIS- eta Europako batzordea

'Ikerketa-sistema erakargarriak' dimentsioak sare zientifikoaren nazioarteko lehiakortasuna neurtzen du; hura hiru adierazleak osatzen dute, eta hiruretan Euskal AE nabarmentzen da EB-27ren aldean. Hala, 'Milioi biztanleko nazioarteko lankidetzan oinarrituta eginiko argitalpen zientifikoak' kopurua 1.957 da Euskal AEn, eta Europan, berriz, 1.181. 'Nazioartean gehien aipatutakoak % 10en arteko argitalpen zientifikoak' ehunekoan (bikainak deituak), Euskal AEn balioa % 10,40 da, eta % 9,79 EB-27n, eta, azkenik, 'Atzerriko doktoreak herrialdeko doktore kopuru osoaren portzentaje gisa' deritzonak, Euskal AEk % 29,15 lortu du, eta EB-27ak, % 17,81.

Aztertutako lehen blokearen hirugarren dimentsioa 'Digitalizazioa' da, eta teknologia digitalaren maila neurtzen du. Bi adierazle biltzen ditu, eta Euskal AE bietan nabarmentzen da. 'Banda zabala sartzea' adierazlean, % 66,3ko puntuazioa du, eta EB-27k, % 52,0koa. Halaber, 'Batezbestekoak baino trebetasun digital gehiago dituzten pertsonen' adierazlean, erkidegoak % 37,0ko puntuazioa du, eta, hala, Europar Batasunarena gainditzen du (% 26,0).

'INBERTSIOAK' bigarren blokea da, eta, hartan, ikerketako eta berrikuntzako inbertsio publikoa eta pribatua neurtzen da; Euskal AEk 0,66 puntu lortu ditu, Europako batezbestekoa baino (0,59) puntuazio hobea. Hiru dimentsio aztertzen dira, eta, haietako bitan, 'Enpresen inbertsioa' eta 'Informazio-teknologiaren erabilera' dimentsioetan, Euskadik EBk baino puntuazio hobea du; beste batean, berriz, 'Finantzaketa eta laguntza' dimentsioan, Europak du puntuazio altuagoa.

'Enpresen inbertsioa'. Dimentsio horrek enpresek berrikuntza sortzeko egiten dituzten I+Gko eta I+Gkoak ez diren inbertsioko hiru adierazle hartzen ditu barne. Haietako bitan, 'Enpresa-sektorearen I+Garen inguruko gastua BPGd-aren % gisa' eta 'Enplegatutako berrikuntzako gastua enpresa berritzaileetan', Euskadi Europar Batasunaren aurretik dago: % 1,59 eta % 1,53, eta 11.004€ eta 7.484€, hurrenez hurren. Hala ere, 'Berrikuntzako gastua I+G gabe (negozio-zifraren gaineko %)' adierazlean, Europar Batasuna (% 0,80) erkidegoaren (% 0,69) gainetik dago.

'Informazio-teknologiaren erabilera'. Dimentsio horrek informazio-teknologiaren erabilera hartzen du, bi adierazleren bidez. Lehenengoan, 'Enplegatutako IKTen inguruko prestakuntza ematen dieten enpresak' delakoan, Euskadik EB gainditzen du: 37,9 eta 20,0, hurrenez hurren. Bigarrean, 'IKTetako enplegatutako espezialistak' delakoan, EBk gainditzen du Euskal AE: 4,5 eta 3,4, hurrenez hurren.

Azkenik, **'Finantzaketa eta laguntza'** dimentsioan, berrikuntza-proiektuetarako dagoen finantzaketa eta ikerketa- eta berrikuntza-jardueretarako gobernuen laguntza neurtzen dira. Dimentsio horretan, hiru adierazle daude. Haietako batek, 'I+Gn inbertitzen duten enpresentzako zuzeneko finantzaketa eta ezarpen-laguntzaren inguruko politika publikoak' delakoak, datu hobea du Euskal AEn, 0,34, EBn baino, 0,17. Hala ere, beste bi adierazleetan, 'Gastu publikoa I+Gn (BPGd-aren gaineko %)' eta 'Inbertsioa arrisku-kapitalean (BPGd-aren gaineko %)', EBk gainditzen du erkidegoa, % 0,78 eta % 0,48, eta % 0,19 eta % 0,11, hurrenez hurren.

'BERRIKUNTZA-JARDUERAK' (enpresen mailan berrikuntzako ahaleginak erakusten dituzte) EISa eta **'INPAKTUAK'** (enpresen jarduera berritzaileen ondorioak jasotzen ditu) eratzen duten hirugarren eta laugarren blokeei dagokienez, Euskal AEk Europako batezbestekoa baino puntuazio baxuagoa izan du, 0,46koa eta 0,50koa izan dute lehenengoan, hurrenez hurren, eta 0,59koa eta 0,62koa bigarrean. Hala ere, Euskadik EB gainditu duen adierazleetako batzuk nabarmendu daitezke.

Hala, **'Elkarlanak'** dimentsioan, enpresa berritzaileen arteko eta sektore publikoarekiko elkarlanerako ahaleginak neurtzen dituen dimentsioan, Euskadik puntuazio hobea izan du, 0,65koa, eta EB-27k, 0,37koa, bi adierazlerengatik: 'Besteekiko lankidetzaren ETE berritzaileak' eta 'Koargitalpen publiko-pribatuak milioi biztanleko'; haietan, erkidegoak 18,12 eta 405,18 puntu izan ditu eta EB-27k, 11,68 eta 133,83, hurrenez hurren.

Azkenik, **'Ingurumen-jasangarritasunaren'** dimentsioan (hartan jasotzen dira ingurumenean inpaktu negatiboa murrizteko hobekuntzak), Euskal AEk 0,76 puntu gainditzen du EB-27 (0,61). Posizio hobe hori lortzen da 'Baliabideen produktibitatea' adierazlean Euskadik EB-27 gainditzen duela (2,95 eta 2,23, hurrenez hurren) eta 'Industriako PM2.5 partikulen emisioak' delakoan berdinduta daudela (0,07).

Gainerako dimentsioetan, **'Berritzaileak'** (merkatuan edo haien erakundeetan berrikuntzak sartu dituzten ETEen proportzioa neurtzen du), produktuaren berrikuntzak eta negozio-prozesuak biak kontuan hartuta, **'Ezagutza-aktiboak'** (berrikuntza-prozesuetan etekin gisa sortutako jabetza intelektualeko eskubideen modu desberdinak hartzen ditu), **'Inpaktuak enpleguan'** (hartan jasotzen da enpleguko berrikuntzaren arrakasta ekonomikoa) eta **'Inpaktuak salmentetan'** (berrikuntza-jardueren ondorioz salmentetan dagoen arrakasta ekonomikoa neurtzen du) direlakoetan, Europar Batasunak Euskal AE gainditzen du, puntuazio handiagoa izan baitu.

[European innovation scoreboard EIS 2022](#)

[Berrikuntzako Adierazleen Panela –EIS 2022–, Euskal Autonomia Erkidegoa](#)

Argibide gehiagorako:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastian kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa Zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tel.: 945 01 75 62